



XXXIX.

**SAGARDO
EGUNA '22**

gehigarri berezia



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

*Ondo pasa
Sagardo egunean!*



943 53 72 38
628 45 78 39 - 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com
reformasmonroy.com

*Berritze zerbitzu integralen bulegoa
Usurbilgo Kale Nagusiko 35.behean
Sektorean esperientzi zabala*

KALE NAGUSIA 35, BEHEA, USURBIL



ANORGA TXIKI S.L.

KRISTALDEGIA



*Ondo pasa
Sagardo Egunean!*

**Beirazko itxitura sistema berria!!!
Perfil bertikalik gabe!!
Zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
Aukera zabalak!**

seeglass one
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...



Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

LAGUNTZARAKO DEIA

Jai giroa auzolanean murgilduta bizitzeko aukera bueltan datorkigu 39. Sagardo Egunarekin. Postuen muntaketa, pintxoak sukaldatu eta zerbitzatu, edalontziak saldu edota noski sagardoa banatu... Hainbat zeregin egon ohi dira Sagardo Egunean. Lagundu nahi duten guztientzat igande goizeko 7:45ean Usurbilgo frontoian biltzeko hitzordua finkatu dute Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek. Boluntario guztiei baserritarrez jantzita agertzea eskatzen zaie. "Aurpegi berriak eta laguntza

behar beharrezkoa dugu. Esku eta hanka guztiak izango dira ongi etorriak!". Baita euria egiten badu ere, "agertzea eskertuko genuke. Dena aterpean egongo dela ziurtatzen dugu, horrela izanez gero".

Neskei deia

Sagardo botatzaileei zuzenduriko deialdia: "asko poztuko ginatke neskak ere animatuko balira". Botatzaileen argazki batekin hasi eta bazkaritan borobilduko dute Sagardo Eguneko goiza.



Sagardo Eguna barrutik giro ederrean bizitzeko aukera aparta dute laguntzaileek.

noaua
jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram
twitter noaua

www.noaua.eus

TXAPELDUN
JATETXEA

SAGARDO EGUNEAN...

PLATER KONBINATUAK
BOKATAK

TXAPELA BURUAN
TA JATEKO MODUAN

MUNA LURRA KALEA 2, 20170 USURBIL, GIPUZKOA
943 21 34 03 - @txapel_dun_jatexea

guria

guria

taberna

Ondo pasa
SAGARDO EGUNEAN!

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

ZENDOIAENEA
taberna

*Ondo pasa
Sagardo egunean!*

NAGUSIA 35, USURBIL

Patrienea Jatetxea
Bazkariak, astelehenetik igandera
Afariak, ostirala eta larunbata

*Ondo pasa
Sagardo egunean!*

Patri

kale nagusia 14. USURBIL
t 943 362 725 - 688 690 361

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK
·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

ZALETUAK INOIZ BAINO BEHARREZKOAGOAK IZANGO DITUEN ITZULERA ANTOLATZAILEENTZAT

Sagardo eta festa egarriz da herria, osasun krisialdiak eragindako bi urteko etenaldiaren ostean. Eta horretara dator maiatzaren 22ko 39. Sagardo Eguna; aurreko bi urteetan etxean ospatetik plaza hartzera itzuliko da berriz. Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldeko kideek hilabeteotan bideraturiko prestaketa lanen ondotik, gure zain dira. “Anima zaitezte!”, luzatu diete gonbita herritarrei.

“Inoiz baino herritarren laguntza handiagoa beharko den urtea”

Ez dira hilabete errazak izan antolakuntzarentzat. “Ilusio handiz hasi arren, ez zaigu erraza egin berriz ere egun hau antolatzen hastea”, zioten apirila amaieran NOAUA!ra igorri zuten adierazpenean. Eta egoerak “inoiz baino herritarren laguntza handiagoa beharko den urtearen aurrean jarri gaitu honek”. Horregatik galdegiten dute inoiz baino indar eta gogo handiagoz, jendea hurbildu dadila maiatzaren 22an plazara; erosi ditzala antolakuntzak prestatutako edalontziak, dasta ditzala pintxoak



Aspaldikoa den irudi hau berritzeko aukera izango da maiatzaren 22an. Osasun krisialdiak eragotzitako Sagardo Eguna jendetsua plazan ospatzeko moduan izango gara berriz.

eta baita edateko moduan izango ditugun sagardoak ere. Hitz gutxitan, aktiboki murgildu dadila festa giroan.

Hiru orduko dastatzea

Segidan dituzue zerrendatuak. Baretetik, Aginaga, Zubieta eta Usurbil zein Gipuzkoako sagardotegietako

postuak izango ditugu, Asturiasko bat ere bai. Eta hurbilekoak, baserriko sagardoak. “Eguraldiak ez dezala jendea baldintzatu, animatu!”. 11:30etan izango da irekiera ekitaldia frontoian, eta bazkal ordura arte festa giroa plazan. Baita arratsalde partean ere Mastraka elektrotxarangako kideekin.

DASTAGAI IZANGO DITUGUN SAGARDOAK

Sagardotegiak:

Aginaga, Aialde Berri, Akarregi (Hernani), Alberro (Hernani), Alorrenea (Astigarraga), Añota (Azpeitia), Araeta, Arratzain, Astiazaran, Bereziartua (Astigarraga), Eguzkitza (Tolosa), Elutxeta (Urnieta), Etxeberria (Astigarraga),

Eula (Urnieta), Goiko Lastola (Hernani), Gurutzeta (Astigarraga), Irigoien (Astigarraga), Izeta (Aia), Larrarte (Astigarraga), Larre-Gain (Ereñotzu), Mizpiradi (Andoain), Oialume Zar (Astigarraga), Ordo-Zelai (Oiartzun), Otegi (Lasarte-Oria), Otsua-Enea (Hernani),

Saizar Euskal eta Saizar, Satxota (Aia), Trabanco (Gijón-Asturias) eta Urdaira.

Baserriak:

Agerre Azpi, Aizperro, Anburu, Gorosti, 3 Arima, Leitzarran, Dranbaenea, Ibindox eta RBLD Sagardoak.

AIALDE BERRI SAGARDOTEGIA: “TXIKITATIK SAGARDOTEGIAN IBILI IZAN GARA GU ERE”

Aialde Berri sagardotegian aldaketa urtea izan dute honakoa. Txotx denboraldi berria hasi aurretik, eskualdatzea egin zuten eta ondorengoei, belaunaldi gazteagoari eman zizkionten sagardotegiarekin aurrera segitzeko jarraibideak. Orain, familiako gazteek hartu dute Aialde Berriko gidaritza. Imanol Zubimendi gaztearekin izan da NOAUA!. Gaia sakonago lantzeko, herriko beste sagardotegietan ere galdeketatxoak luzatu du NOAUA!k; Iruin, Urdaira eta Saizar sagardotegietan hain zuzen.

NOAUA! Aurtengo sasoiaren etxeko gazteek hartu duzue sagardotegiaren gidaritza. Uste baino arinagoa izan al da? Ala gogorragoa?

Imanol Zubimendi: Hasieran, behin sagardotegia hartzeko erabakia hartuta, errespetua sentitzen genuen. Beldurra agian ez, baina bai halako errespetu bat. Guztiz barneratu gabeko erabakia izan zen, zer etorriko zen oso ondo jakin gabe. Eguna



“Oraindik asko daukagu ikasteko, baina oso ondo moldatzen ari gara”

“Sobera ditugun txuletekin hanburgesak prestatzen ditugu eta, horrela, aprobetxatu egiten dugu haragia. Jendeak ondo hartu duen zerbitzua izan da”, esan digute Aialde Berrin.

iritsi eta lanean hastean, orduan ikusi genuen martxa nolakoa zen eta gaurdaino. Txikitatik sagardotegian ibili izan gara gu ere, eta ez zen ezer berria guretzat. Lana egiterakoan ere, oso ondo eraman dugu aurrera. Oraindik asko dugu ikasteko, baina ondo moldatzen ari gara eta gustura ari gara lanean.

Eskualdatze honen ondotik, zer esaten dizuete sagardotegiko arduradun zirenek?

Haiek ere bazuten beldur puntu hori hasieran. Behin bazkaltzera etorri ziren eta ikusi zuten sagardotegia beteta zegoela eta zerbitzua behar bezala ematen genuela, eta lasai lo egin zezaketela ikusi zuten.

“SAGARDOTEGIEN BIHOTZA UPATEGIA DA”

Txotx garaia nolakoa izan da?

Jendeak gogoz hartu du, eta horrez gain, asko atzeman dugu ohiturak aldatu egin direla. Lehen gauetan egiten zen lan gehien eta orain, asko jaitsi da hori. Larunbat eguerdiak izaten dira asteko egun eta momenturik potentee-

nak. Txotxa itxita egon zen hasieran, eta gero irekitzeko baimena eman zutenean, aldaketa nabaritu genuen. Jendeak sagardotegietan txotxa bilatzen du eta gogoz zegoen. Sagardotegien bihotza upategia da eta irekita dagoenetik gorakada nabaritu dugu.

Aurten Sagardo Eguna behar bezala ospatzeko aukera izango dela ematen du. Zuen sagardoa ere bertan izango al da?

Bai, gure sagardoa bertan izango da, eta gu ere bertan izango gara, anaia eta biok, sagardoa botatzen.

URDAIRA: "GOGOTSU GAUDE BI URTEREN OSTEAN BERRIZ ERE HERRIKO FRONTOIRA ITZULTZEKO"

NOAUA! Sagardotegian geroz eta eskuartze aktiboagoa duzu. Zein dira zure funtzioak bertan?

Ane Azkonobieta: Denetik egiten dut, egia esan. Zerbitzari lanetan aritzen naiz batzuetan, parrilan bes-teetan, behar denean ontziak gar-bitzen... tokatzen dena egiten dut. Sagardoa egiteko prozesua ere zer-txobait ezagutzen dut, baina ikas-ten ari naiz oraindik. Gehiago aritzen naiz ikasten egiten baino. Gutxien horri buruz dakit sagar-dotegiko kontuetan. Sagardote-giari neurria ondo hartuta daukat, baina sagardoa egiten oraindik ez dakit gehiegi.



"Oso gustura aritzen naiz sagardotegian lanean"

Etxeokoez zer esaten dute zure lanari buruz? Gustatuko litzaieke zu izatea sagardotegiko hurrengo nagusia?

Ez didate inolako presiorik jartzen. Ikasketak egiten ari naiz eta haiek nire bidea jarraitzeko gomendatzen didate. Ez naute sagardotegian lan egitera inoiz behartu eta ez dute ha-

"Ez dago jakiterik biharko egunean zer izango den, baina sagardotegia hartzeko aukera izango banu, hartuko nuke zalantzarik gabe", adierazi digu Ane Azkonobietak.

lakorik egingo etorkizunean ere.

Noizbait sagardotegiaren zuzendaritza izatea da zure asmoa edo etorkizuna beste lan batzuetan irudikatzen duzu?

Ez dago jakiterik biharko egunean

zer izango den, baina aukera izango banu, hartuko nuke zalantzarik gabe. Egoera ona tokatzen bada eta gogoz baldin banago gustura hartuko nuke. Orain gustura aritzen naiz lanean eta etorkizunean ikusiko dugu zer gertatzen den, apurka-apurka.

"JENDEAK OSO ONDO ERANTZUN DU TXOTX GARAIAN"

Txotx garaia nolakoa izan da?

Nik uste oso denboraldi ona izan dela aurtengoa. Hasieran txotxik gabe hasi ginen COVID neurriak zirela eta, eta gogotsu geunden irekitzeko baimena noiz eman-go. Behin helburua lortuta, erabateko normaltasuna nagusitu

da, jendea txotxean ezin alaiago eta gu ere inoiz baino gogo gehiagorekin. Sagardotegia bete dugu egun askotan, eta urte hauetan denok pasatu ditugun tristezia horiek bazterrean geratu dira jada. Jendeak oso ondo erantzun du eta gu oso pozik gaude.

Aurtengo Sagardo Egunean bertan izango zarete?

Bai, jakina, bertan izango gara. Gogotsu gaude bi urteren ostean berriz ere herriko frontoira itzultzeko. Asmoa dut sagardoa botatzen jartzeko ere, eta beraz, bertan topatuko gara!

IRUIN SAGARDOTEGIA: “DISFRUTA DEZAGUN SAGARDOGILEOK ETA KONTSUMITZAILE OROK!”

NOAUA! Nola ikusten duzu belau-naldi berrien eskuartzea sagardotegietan?

Ion Astiazaran: Ilusioa egiten dit jende gaztea inguruko sagardotegietan lanean ikusteak. Gure kasuan, ni tar-teko belaunaldikoa naiz, baina anaia ere sagardotegian dabil lanean eta 30 urte ditu. Nik harreman estua dut Astigarragako beste sagardogile gazte batzuekin eta fundamentu handiz eta oso txukun lan egiten dutela iruditzen zait. Jende berria eta gaztea behar dute sagardotegiek eta lan ederra egiten ari dira.



“Akatsak egiteko askatasuna izan dut, eta haietatik ikastekoa”

“Gurasoei ilusioa egiten zien semeak ere familiako enpresarekin aurrera jarraitu nahi zuela ikusteak”, adierazi digu Iruingo Ion Astiazaranek.

Gurasoei zer iruditu zitzaizen zu sagardotegian lanean hastea?

Gurasoei ilusioa egiten zien ikusteak semeak ere familiako enpresarekin aurrera jarraitu nahi zuela. Presio askorekin egiten nuen lan, behar bezala egin nahi nituelako gauzak eta nire nagusiak gurasoak izanda, beti sentitzen da presio gehitu hori. Ordu asko eta lan asko egin nuen.

Zure lanari behar besteko balioa ematen al zioten?

Bai, beti babestu izan dituzte nire erabakiak eta inoiz ez dute kexarik izan. Zentzu horretan, ez dut sekula arazorik izan. Batzuetan erabaki onak hartu ditut eta beste batzuetan txarrak, bai-

na gurasoak hor egon dira beti babesa emateko.

Garrantzitsua da akatsak egitea ere, gero horiengandik ikasi ahal izateko. Akatsak egiteko askatasuna izan dut eta haietatik ikastekoa, eta oso esker oneko nago.

“OSO SAGARDO ONA ATERA DA AURTEN”

Txotx garaia nolakoa izan da?

Oso urte arraroa izan da guretzat. Pandemiak harrapatu gaitu beste urte batez eta oso aldakorra izan da neurri aldaketen ondorioz. Aurten sagardo gutxiago egin dugu, aurreikusita baigeneukan kontsumoa jaitsi egingo

zela. Kalitateari erreparatuta, oso sagardo ona atera da aurten, baina kantitateari dagokionean, gutxiago egin dugu. Jende ugari hurbildu da sagardotegira, gogo biziz.

Aurtengo Sagardo Egunean bertan izango zarete?

Noski baietz. Izugarritzko gogoia dugu guk ere. Gurera upategiaren bila etortzen diren horiek bezain besteko gogoia dugu guk ere Usurbilera joateko Sagardo Eguna. Ea giro paregabea sortzen den! Disfruta dezagun sagardogileok eta kontsumitzaile orok!

SAIZAR SAGARDOTEGIA: “GOGO HANDIZ OSPATZEN DUGUN EGUNA DA”

NOAUA! Herriko sagardotegietan geroz eta gazte gehiago zabiltzate lanean. Gazte batentzat lan gogorra izan daiteke?

Iñaki Lertxundi: Bai, jada gazteok martxan jarrita gaude. Lan gogorra baino gehiago, lan sakrifikatua izatera irits daitekeela esan nezake. Baina lan guztiek daukate beren alde ona eta txarra, beraz, oreka bilatzen saiatu behar dugu.

Nagusiek zer diote? Zuen lanari zer balio ematen diote?

Guri tokatu zaigun lan honetan, etengabe jendearekin kontaktuan gaude, hau da, zuzeneko harremana dugu bezeroekin. Etxekoen nahia da bezeroak etxean bezala sentiaraztea, sagardoaren kultura ezagutzera ematea, sagardoaz gozatzea, eta batez ere, jendeak esperientzia ona bizitzea eta bueltatzeko ilusioa izatea.

Gustatuko litzaizueke etorkizunean zuek izatea sagardotegiko jabe?



“Etxekoen nahia da bezeroak etxean bezala sentiaraztea”

“Proiektu berriak eta helburu berriak ditugu buruan, beraz, horiei eustea da momentu honetako erronka”, Saizar sagardotegitik aditzera eman digutenez.

Momentu honetan ez zait hori garrantzitsuena iruditzen. Niretzat garrantzitsuena da hirugarren belaunaldiko partaideok alor desberdinetan trebatzen ari garela eta pixkanaka lantaldean gure txokoa bilatzen ari garela ikustea. Azken finean, gure

gainekoek urte asko daramatzate sagardogintzan eta azkenean, etengabeko ikasketa bat izatea da garrantzitsuena, maisu onak ditugu. Proiektu berriak eta helburu berriak ditugu buruan, beraz, horiei eustea da momentu honetako erronka.

“SAGARDOTEGIAREN ESENTZIA BODEGAN DAGO”

Aurtengo txotx denboraldia zer moduzkoa izan da?

Oso ona. Sagardotegiaren esentzia bodegan dago eta berriro ere normaltasunez bertako ateak zabaltzea ederra izan da. Azkenean, urte guztiko lanaren zati handi bat hor islatuta ikusten

da eta horrek guretzat balio handia du. Jendea oso gustura dabil.

Sagardo Egunean frontoian izango da zuen sagardoa?

Bai. Usurbildarrok gogo handiz ospatzen dugun eguna da. Egun aproposa da botila bakoitzaren atzean

dagoen lan guztia balioan jartzeko. Gainera, txotx denboraldiari amaiera ematen diogu, nahiz eta sagardotegia zabalik daukagun urte osoan. Beraz, goizeko dastaketaz gain, gure etxean sagardoaz gozatzen jarraitzeko aukera izango da.

TXAPELKETAK AURRERAGO

Aurreko aldizkarian, maiatzaren 22ko Sagardo Egunean Euskal Herriko 5. Egurrezko Sagardo Lehiaketari eta 3. Sagar Muztio Lehiaketari lotutako sariak banatuko zirela berri ematen zuen iragarkia argitaratu genuen. Antolatzaileek ohartarazi dutenez ordea, atzeratu egingo dira hitzorduok, ez dira igandean ospatuko, aurrerago baizik. Data berria zehazten dutenean, Euskal Herriko sektoreko ekoizle oro aurkeztea ahalbidetzen duten bi txapelketok noiz egingo diren jakitera emango dutela iragarri dute. Aurreko sariketa San Tomas Azokan ospatu zen.



Iragan abenduaren 19ko San Tomas Azokaren amaieran banatu zituzten, 4. Egurrezko Sagardo Lehiaketako eta 2. Sagar Muztio Txapelketako sariak.

TXIRIBOGA

TABERNA

Ondo pasa Sagardo egunean!

BAZKARIAK ETA AFARIAK
(ostiral gauetik igande eguerdira)

PINTXOAK ETA RAZIOAK

PINTXO BEREZIAK (asteburu eguerditan)

OGITARTEKOAK (SAGARDO EGUNEAN)

943 21 88 40

IRAZU KALEA 6, USURBIL

Usurbilen, zure auto-tailerra

Atallu

AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

DOHAZNEK

EuroTaller

Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoaki@gmail.com

G Auto Guria s.l

Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Atxega Jauregia
JATETXEA



·EGUNEKO MENUA: (asteleheneretik ostiralera)
·EGUNEKO PLATERA · ASTEBURUKO MENUA · KARTA
· RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK..

ATXEGA JATETXEKO LAN TALDEAREN PARTEZ...
Ondo pasa Sagardo egunean!

TERRAZA ZERBITZUA ETA ETXERA ERAMATEKO ERE!!



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

Uraitz, s.l.



**Igeltseritza
Orokorra**

Telefona

693 05 93 92

Borda Berri 2, 3ºA USURBIL

uraitz@uraitz.com

SAGARDOAREN KULTURA AZTERGAI, UDALAK ABIAN DUEN IKERLANEAN

Belaunaldiz belaunaldi transmititu den arren, idatzi gabe dagoen sagardoaren kultura ikertzen hasia da Usurbilgo Udala, Josu Ozaita antropologoaren eskutik. Hasia duten lanketa urte amaierarako txosten batean bildu eta aurkeztu asmo du Ozaitak. Egungo azterlanarekin batera, etorkizunera begirako ideia edo proposamenak ere jaso nahi dituzte. Inork sagastien bueltako bizipen edo istoriorik izan eta partekatu nahiko balu josuozaita@gmail.com helbidera mezu bat idatzi edo udal-txean jakinarazteko deia egin dute. “Oso gustura hurbilduko naiz berarekin tertulian aritzera”, zioen antropologoak iragan asteko egitasmoaren aurkezpenean.



Abian duen sagardoaren kulturaren inguruko azterlan etnografikoaren nondik norakoen berri eman zuen Usurbilgo Udalak iragan astean, Josu Ozaita antropologoarekin batera.

“Gure bizimoduaren isla”

Sagardoa eta sagardogintza, ekinean eta “bizi-bizirik” dagoen ondarea dela aipatu zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, “gure bizimoduaren isla eta ardatz”. Eta argi ikusten dela hau guztia alor guztietan: historian, nekazaritzan, kulturen, paisaian, garapen

ekonomikoan... Alkatearen esanetan, “sagardoa ekoizteak gauza asko mugitzen ditu bere barruan; harremanak, sagastiak zaintzea, sagarren eza-gutza, errituak, naturarekin hartuema-na, dastatzea, ilusioa, harrotasuna, herri nortasuna... Hitz gutxitan, sagardoaren bueltan sortzen den kultura”.

“Eremu paregabea”

Gastronomia, jaiak eta turismoa hiru alor hauek aztertzen aritzen direla kontuan izanda, arloetatik begiratuta, azterlanerako “Usurbil eremu paregabea dela iruditzen zaigu”, adierazi zuen ikerlana bideratuko duen antropologoak iragan asteko aurkezpenean.

SAGARDO EGUNAREN ERAGINA, IKERGAIETAKO BAT

Behaketa lan eta elkarriketekin osatuko duten azterketak “sagardoaren kultura deskribatzea izango du helburu”. Iraganera begira jarriko dira, herri hau erreferentia izan baita sagardo industriari. Egungo herriko zazpi sagardotegietako nahiz edari hau etxean ekoizten dutenen istorioak ere bildu nahi dituzte, “etxean

egon, beraien sagarra bildu, sagardoa egiten egongo gara”, iragarri du Ozaitak. Egun “hor daude eragin eta baliu batzuk ikusezinak dira”, eta horiek ikustarazten saiatuko direla berri eman zuen Ozaitak. Besteak beste, sektoreko eragileak hizpide hartuko ditu ikerlanak; Alkartasuna Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea edota Sagardo

Eguna bera. “Ez da ohiko sagardo dastaketa simple bat”, nabarmendu zuen Ozaitak. Ibilbide luzeko ekimena sagardoaren kulturari oso lotua egon da. Horregatik, “zer den eta herriarregian zer eragin duen aztertu nahi dugu”, sagardoaren bueltan laun artean edo familian ospatu ohi diren gainerako ohiturekin batera.

*Ondo pasa
Sagardo egunean!*



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

edaritegia BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

*ondo pasa
Sagardo Egunean !!*

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42

txirriStra TABERNA



Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak
Etxeko hanburgesak

Ondo pasa Sagardo egunean

INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO GUNEA

Bueltan datorren Sagardo Egunak izango duen gune berria duzue; indarkeria sexistaren gaia ikusarazi eta herritarrak kontzientziatzea helburu izango duena. Usurbilgo Udalaren eskariz, Emagin elkarteak egokituko du eremu hau maiatzaren 22an, 18:00-23:00 artean, Bordatxo taberna pareko biribilgune ondoan, Mikel Laboa Plazaren goiko aldean. “Emagin elkarteko kideak une oro izango dira gunea dinamizatzen, bertaratutakoei aholkularitza ematen eta zalantzak eta kezkak argitzen” 12 urtetik gorakoentzat. Babes eta elkartasun gunea izango da, “indarkeriari aurre egiteko bitartekoak erraz-

tuko dituen erreferentziatzko leku izateko bokazioarekin. Guneak, horrez gain, erasotzaile izan daitezkeenei dena libre ez dela eta erasorik balego erantzuna izango duela ohartaraztea ere badu helburu”.

Ahalduntzean ere eragile

Emakumeen ahalduntzean ere eragin nahi du. “Euren burua defendatzeko duten gaitasunaz jabearaztea eta maitasun erromantikoaren eredua zalantzan jarrita plazerean oinarritutako harreman osasuntsuak bultzatzea”. Erronka hauei begira, “era askotako materiala eskainiko dute”.



Indarkeria sexistarik gabeko gunea izango du igandeko Sagardo Egunak.

Ondo pasa Sagardo Egunean

JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8 • ☎ 943 370 008



943 530 337
607 119 313

ITZIRA
BARRIKUNTZAK



Ondo pasa Sagardo Egunean!

- gremioen koordinaketa ·berritze lanak
- sukaldeak ·komunak · mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es




EROSKI
city



Ondo pasa
Sagardo egunean!


Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

SAGARDOEGUNA 2022




**EZDUGU
NAHI
SANTU
IZAN**

**AITZAGA
TABERNA**



**ARRANDEGIA
PELLO**



ONDO PASA
SAGARDO EGUNEAN!

ASTEARTETIK-LARUNBATERA 8:30-13:30

650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL

SAGARDOARI LOTUTAKO HITZORDU GEHIAGO

39. Sagardo Egunetik haratago, datozen hilabeteotan Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloko hitzordu gehiago izango ditugu, apirilean etxez etxe banatu zen “Usurbil, Sagarraren bihotza, Sagardoaren kultura. 2022” agendan iragarria dagoenez.

Saio gehiago urte amaierara arte

Lehenengoa maiatzaren 20an; 15:30-18:30 artean Potxoenean, “Ilargiaren eragina landare, zuhaitz, erle eta fruitu arboletan. Egutegi biodinamikoa” saioa Xabier Akizurekin. Saio gehiago udan; “sagastien

udako kimaketa” edota “fruitu arboletan udako edo begiko txertaketa” hizpide duten ikastaroekin. Irailerako etxean sagardoa egiteko hastapenak edota etorkizuneko sagastien diseinuari buruzkoak, baita etxean muztioa egiten ikasteko tailerra ere. Urrirako sagardotako sagarren erakusketa eta bertso-ibilaldia herriko sagastietan barrena. Urtea San Tomas Azokarekin agurtuko dugu abenduaren 18an. Aurretik, “sagarraren eta sagardoa sukaldean” izeneko tailerra eta sagargintza eta sagardogintza ekologikoari buruzko azken hitzordua azaroan.



Ilargiak landare eta fruitu arboletan duen eraginari buruzko ikastaroa maiatzaren 20an.

URDAINTZI
eraikuntzak

IT-ak egiten dira

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK

urdaintzi@euskalnet.net

Ondo pasa Sagardo egunean!

Aguirrezabal Estankoa

Ondo pasa
Sagardo Egunean

Kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

Rafa

iturgindegia



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfidantzazko gremioak
- Komuneko altzariak

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

KUNDA

Ondo pasa
Sagardo Egunean!

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA

Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila destilatuz
eta Bisabobolez indartua

Zorien
aurkako lozio
ORGANIKOA



Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

mur

errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL
puntapax kalea 6 A-B

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

EGITARAUA

Maiatzak 22, igandea

- 11:00 Botatzaileen argazkia.
- 11:30 39. Sagardo Eguna-ren irekiera ekitaldia Usurbilgo frontoian.
- Segidan, baserriko zein sagardotegi ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera Usurbilgo plazan. Honetaz gain, pintxo aukera zabala dastatzeko aukera.
- 14:30 Sagardo dastaketaren itxiera.



- 15:00 Sagardo botatzaileen bazkaria.
- 18:00-21:00 "Matraka" Elektrotzaranga kaleetan zehar.
- Antolatzailea: Usurbilgo Sagardo Eguna-ren Lagunak.

Antxeta
TABERNA




Ondo pasa Sagardo egunean

proba itzazu gure
HANBURGESA BEREZIAK!
eramateko ere!! 619 409 198

egunero irekitzen dugul!

- eguneko menua (asteleheneretik-larunbatera)
- jaiegunetan: asteburuko menua
- ogitartekoak, pintxoak, razioak, oilasko erreak, hanburesak, paellak eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03



Ondo pasa Sagardo Egunean!

BENTA TABERNA

Pintxoak eta giro ona!

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Ondo pasa
Sagardo Egunean!

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

SAGARDO
EgUNA

Hamaiketakoak
Ogitarteko egin berriak
Saiheskia

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

PUNTAPAX 8, USURBIL 943 36 91 39

SAGARDO EGUN ON denoi!

USURBILGO IX. SAGARDO EGUNA MAIATZAK 22 2022

EGITARAUA

- 11:00 Botatzaileen argazkia.
- 11:30 Irekiera. Baserniko zein sagardotegi ezberdinetako sagardoak dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala.
- 14:30 Sagardo dastaketaren itxiera.
- 15:00 Botatzaileen bazkaria.
- 18:00-21:00 "Marraka" Elektrotzaranga kaleetan zehar.



Usurbilgo Udala